## URNIETAKO UDALA

*Iragarkia*

Urnietako udalbatzarrak 2007ko abenduaren 19ko ohiz kanpoko bileran hasiareko izaeraz onartu zuen Urnietako aldi baterako etxebizitzen udal araudia.

Espediente honek jendaurreko erakusketaren tramitea bete duenez baliozko 30 egunetan eta interesatuek ezein erreklamaziorik egin ez dutenez, behin betiko onartutzat ematen da erabaki hori.

Iragarki honen Eranskinean argitaratu da Urnietako etxebizitza babestuen araudi osoa.

Urnieta, 2008ko otsailaren 19a.—Nagore Alcorta Elorza, Idazkaria.

(396) (1985)

## ALDI BATERAKO ETXEBIZITZEN UDAL ARAUDIA

### ZIOEN AZALPENA

Araudi honen helburua da aldi batez ostatu emateko etxebizitzetarako sarbidea arautzea.

Araudia sortzearen arrazoia da, alde batetik, Gizarte Zerbitzuen Sailean jaso diren eta konpondu ezin izan diren behar egoerei erantzuna eman ahal izatea, eta beste alde batetik, udal etxebizitzen araudirik ez egotea. Horretaz gain, larrialdiko bizilekuen gaiaren inguruan Udalak duen eskumena arautzen duten araudiei erantzuna eman nahi zaie.

Aldi batez ostatu emateko etxebizitzen bidez premiazko edo larrialdi egoerei erantzun nahi zaie, eta horretarako bi udal etxebizitza utziko dira, epe motz jakin baterako. Etxebizitza hauek zerbitzu publikoa emateko uzten dira eta, ondorioz, administrazio publikoek zerbitzu publikoak emateko ezarritako araudiak bete behar dituzte, hau da, aldi batez ostatu emateko etxebizitzaren erabiltzaileek Urnietako Udalarekin izango duten harremanak ez du sortuko alokatzearen figura juridikorik.

Udalak zerbitzu hauek emateko duen eskumenaren inguruan, lege hauek hartzen ditugu kontuan:

— Toki Araubideko Oinarriei buruzko apirilaren 7/1985 Legea.

— Gizarte Zerbitzuetako urriaren 18ko 5/1996 Legea.

— uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak, gizarte zerbitzuen arloko funtzioak xedatzen baititu, 4.2.1.2 artikuluan honako hau dio udalen funtzioei buruz: «Larrialdi egoeretarako harrera zerbitzuaren funtzioa da arazo hori duten pertsonei behin-behineko etxebizitza ematea «. Eta 4.2.1.3 artikuluak, berriz, honela dio: «Larrialdietarako harrera zerbitzuak ondorengo modalitateetakoren bat edo batzuk hartu ahal izango ditu, eta horietaz gain beste ostatu era batzuk ere erabili ahal izango dira:

a) Eskatzailea bizi den udalerriko hoteletan adostuta dagoen toki kopurua.

b) Harrera etxebizitzak. Etxebizitza ezak senitartekoentzat gatazka larria dakarren kasuetan nahitaez harrera etxebizitzetan hartu beharko dira segurtasun fisiko edo emozionala arriskuan duten pertsonak. Etxebizitzak non dauden isilpean gorde beharko da.

c) Aterpeak, etxebizitza finkorik ez duten pertsonentzat.

## AYUNTAMIENTO DE URNIETA

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Urnieta, en sesión extraordinaria celebrada el 19 de diciembre de 2007, aprobó inicialmente el reglamento municipal de viviendas de alojamiento temporal.

Habiéndose sometido dicho expediente al trámite de exposición pública por el plazo de 30 días hábiles y no habiéndose deducido por parte de los interesados reclamación alguna, se tiene por adoptado definitivamente el citado acuerdo.

Se publica como Anexo a este anuncio el Reglamento íntegro de la vivienda tutelada de Urnieta.

Urnieta, a 19 de febrero de 2008.—La Secretaria, Nagore Alcorta Elorza.

(396) (1985)

## REGLAMENTO MUNICIPAL DE VIVIENDAS DE ALOJAMIENTO TEMPORAL

### EXPOSICION DE MOTIVOS

El presente reglamento tiene por objeto regular el acceso a las viviendas de alojamiento temporal.

La necesidad de esta regulación viene dada, por un lado, por las distintas situaciones de necesidad que se han venido recibiendo en el Departamento de Servicios Sociales y a las que no se ha podido dar respuesta, y por otra parte, por la posibilidad actual de que dos viviendas municipales puedan, una vez regulado su uso, destinarse a la cobertura de las mismas.

Por medio de las viviendas de alojamiento temporal se quiere dar respuesta a situaciones de urgencia/ emergencia realizando la cesión de una vivienda Municipal por un período temporal definido. La cesión de estas viviendas está afectada a la prestación de un servicio público y debe atender, por lo tanto, a la normativa que regule la prestación de servicios de las Administraciones Públicas, es decir, la relación del usuario de la vivienda de alojamiento temporal con el Ayuntamiento de Urnieta no constituirá figura jurídica de arrendamiento.

Respecto a la competencia del Ayuntamiento para prestar estos servicios, nos remitimos al siguiente marco legal:

— La Ley 7 /1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

— La Ley 5/1996 de 18 de octubre, de Servicios Sociales

— El Decreto 155/2001, de 30 de julio, de determinación de funciones en materia de servicios sociales dice, en su artículo 4.2.1.2. sobre funciones de los Ayuntamientos que «la función del servicio de acogimiento de urgencias consistirá en ofrecer una solución residencial de carácter temporal a las personas afectadas» Y sigue, en el 4.2.1.3. «el servicio de acogimiento de urgencia podrá presentar alguna o algunas de las siguientes modalidades, sin perjuicio de que puedan articularse otras fórmulas de alojamiento:

a) La concertación de plazas hoteleras en el municipio de residencia.

b) Los pisos de acogida, en los que necesariamente deberán atenderse los casos en los que la carencia de domicilio traiga causa de un conflicto familiar grave que pone en peligro la seguridad física o emocional de las personas, debiendo garantizarse la confidencialidad de la ubicación de dichos pisos.

c) Los albergues, destinados a personas que carecen de domicilio fijo.

I. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Xedea.*

Araudi honen xedea da aldi batez ostatu emateko etxebizitzetarako sarbidea arautzea.

1. Aldi batez ostatu emateko etxebizitzak Udalak larrialdi egoeretan aldi baterako ostatu emateko dituenak dira. Horien funtzioa da etxebizitza ezak sortutako egoera larriei erantzuna ematea, nolabaiteko egoera egonkorra emateko esku hartzeko plan bat diseinatu eta gauzatzea beharrezkoa den kasuetan.

2. Pertsonen eta etxebizitza horietan sartzera eraman dituen egoeraren jarraipena eta esku hartzeko plana Gizarte Zerbitzuak Sailak egingo ditu.

3. Aldi batez ostatu emateko etxebizitza aldi berean hainbat pertsonaren arazoei erantzuna emateko erabil daiteke, baldin eta etxebizitzaren neurriak eta ekipamenduak horretarako aukera ematen badute. Onuradunek ezin izango dute inolaz ere bertan duten antzinatasuna dela-eta inolako eskubiderik alegatu etxebizitza era esklusiboan erabiltzeko.

*2. artikulua. Definizioak.*

Araudi honen ondorioetarako, etxebizitza eza edo bizikidetzako gatazka larri egoera kritikotzat hartuko dira, ondorengo egoeren ondorioz sortutakoak badira:

a) Jurisdikzio zibilaren aurrean egindako prozeduretan epai irmoz agindutako kaleratzeak, horien arrazoiak direnean baliabiderik ez izateagatik ez ordaintzea, jabeak etxebizitza behar izatea edo hondamen deklarazioa edo antzekoak jasotzea.

b) Harrera etxebizitza behar duten pertsonen etxebizitza dagoen eraikina berehalako hondamen deklarazioa jasotzea.

c) Hondamendi, sute, uholde eta antzeko fenomenoren batek familia unitatearen etxebizitza hondatzea.

d) Pertsonen segurtasun fisiko edo emozionala arriskuan jartzen duen familia gatazka larria gertatzea.

e) Senitartekoren bat etxebizitzatik berehala ateratzea agintzen duten epaiak.

f) Bestelako alojamendu zerbitzuren batean ezarrita dagoen gehienezko epea bete eta eboluzio positiboa izan ondoren bizitza independentea egiteko egokitze epea eta prestakuntza behar duten pertsonak.

g) Gizarteratze programan parte hartu eta ostatua behar duten pertsonak.

III. ATALA

ONURADUNAK.

*3. artikulua. Onuradun zein izan daitekeen zehaztea: Baldintzak.*

Urnietan erroldatutako eta aurreko artikuluan adierazitako egoera horietakoren batean dagoen edozein pertsona edo bizikidetza unitate izan daiteke aldi batez ostatu emateko etxebizitzen onuradun. Salbuespen gisa etxebizitza hauetara sartu ahal izango dira erroldatuta ez egon arren, baina urnietarrak izanik, egoera berezia dela-eta etxebizitza hauetan sartzea komenigarri ikusten diren pertsonak.

CAPITULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto.*

El presente reglamento tiene por objeto regular el acceso a las viviendas municipales de alojamiento temporal.

1. Son Viviendas de alojamiento temporal aquellos pisos de titularidad municipal destinadas al acogimiento temporal en situaciones de urgencia, que sirven para además de atender situaciones críticas determinadas por la carencia de alojamiento, para proporcionar un marco relativamente estable en el tiempo para aquellos casos en los que sea necesario el diseño y ejecución de un plan de intervención.

2. El seguimiento de las personas y de la situación que les ha llevado a ocupar estas viviendas y el plan de intervención correspondiente, se realizará desde el área de Servicios Sociales.

3. Una misma vivienda de alojamiento temporal puede ser utilizada simultáneamente para dar solución a problemas de personas distintas, siempre que las dimensiones y equipamientos de la vivienda lo permitan. En ningún caso podrá esgrimirse por parte de las personas beneficiarias ningún tipo de derecho sobre la utilización exclusiva de la vivienda en función de su antigüedad en el mismo.

*Artículo 2. Definiciones.*

A efectos de este Reglamento se entenderán como situaciones críticas de carencia de alojamiento o por graves conflictos convivenciales las derivadas de las siguientes circunstancias:

a) Desahucios dictados por sentencia judicial firme en procedimientos seguidos ante la jurisdicción civil por falta de pago por insuficiencia de recursos, por necesidad del propietario, por declaración de ruina o similares.

b) Declaración municipal de ruina inminente de la edificación que sirva de residencia a la persona o personas necesitadas de acogida.

c) Catástrofe, incendio, inundación y fenómenos similares que inhabiliten la edificación que sirva de residencia de la unidad familiar.

d) Conflicto familiar grave que pone en peligro la seguridad física o emocional de las personas.

e) Sentencias judiciales que ordenen la salida inmediata de la vivienda habitual de un miembro de la familia.

f) Personas que habiendo cumplido el tiempo máximo de estancia establecido en algún otro servicio de alojamiento y habiendo tenido una evolución positiva, necesitan un período de adaptación y preparación para llevar una vida independiente.

g) Personas con necesidad de alojamiento que estén participando en un programa de inserción social.

CAPITULO II

DE LAS PERSONAS BENEFICIARIAS

*Artículo 3. Determinación de las personas beneficiarias: Requisitos.*

Puede ser beneficiarias de las viviendas de estancia temporal cualquier persona o unidad de convivencia, empadronada en Urnieta, que se encuentre en alguna de las situaciones señaladas en el artículo anterior. Excepcionalmente, podrán acceder a estos pisos las personas que siendo de Urnieta, carezcan del requisito del empadronamiento cuando motivos excepcionales así lo aconsejen.

*4. artikulua. Erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak.*

4.1. Eskubideak.

Zerbitzua erabiltzen duten pertsonek honako eskubide hauek dituzte:

a) Orientaziorako eskubidea. Pertsona bakoitzaren behar zehatza ebaluatu ondoren bere egoerari gehien egokitzen zaizkion zerbitzu edo prestazioen inguruko orientazioa emango zaio, eskaera egiteko erabakia hartzerakoan laguntzeko asmoz. Informazioa emango zaio zerbitzuaren edukiaz, prezioaz edo laguntzez eta zerbitzua eskatzeko prozeduraz.

b) Diskriminatua ez izateko eskubidea. Zerbitzua era boluntarioan jasotzeko eskubidea, sexua, arraza, erlijioa, ideologia edo bestelako baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial direla-eta diskriminaziorik jasan gabe. Era berean, eskubidea du zerbitzua bere borondatez uzteko, aldi baterako edo behin betiko.

c) Zerbitzu egokia jasotzeko eskubidea. Zerbitzua EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan jasotzeko eta haren pribatutasuna, autonomia eta duintasuna errespetatuak izatekoa ere bai. Ahal den neurrian, erabiltzaileek gune pribatuak edukitzeko eskubidea izango dute bai eta haien irizpideen arabera erabiltzekoa ere.

d) Isilpekotasunaren eskubidea. Tramitazio eta zerbitzua emateagatik ezagutzen diren datu pertsonalak isilpekoak izango dira eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren araberakoak izango dira.

e) Informazioa jasotzeko eta parte hartzeko eskubidea. Informazioa jasotzeko, erabiltzaile moduan eragin diezaieketen arlo guztien inguruan kontsultatuak izateko eta kexa eta iradokizunak aurkezteko, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzan horretarako indarrean dauden sistemak erabilita.

f) Eskatzaileek, etxebizitzan hilabete bat baino gehiago egongo direla aurreikusiz gero, etxebizitzan erroldatzeko eskaera egin dezakete bertan dauden aldi horretan, eta horretarako arautukako beharrezko baldintzak bete beharko dituzte.

4.2. Betebeharrak.

Zerbitzuan parte hartzen duten pertsonek betebehar hauek izango dituzte:

a) Egin beharreko kudeaketa administratibo edo judizial guztiak egin beharko dituzte aldi batez ostatatzeko etxebizitzan egotea sortu duen egoera aldatzeko. Era berean, ez diete zerbitzua erabiltzen utziko Urnietako Udalak baimendu ez dituen pertsonei, pertsona horiekin duten ahaidetasuna edo harremana edozein dela ere.

b) Aldi batez ostatatzeko etxebizitzako gelak, objektuak eta zerbitzuak erabiltzearen inguruko baldintza espezifikoak arautzeko sortutako barne funtzionamendurako arauak bete beharko dituzte.

c) Etxebizitzara sartzen utzi beharko diete Gizarte Zerbitzuen Saileko langileei edo sailak baimendu dituen pertsonei.

d) Araudi honetan ezarritako prezioa ordaindu beharko dute.

e) Udal etxebizitzan erroldatu diren kasuetan, erroldatik kenduko dira zerbitzua uzten dutenean. Beraiek kendu ezean, Udalak bere kabuz kenduko ditu erroldatik.

*Artículo 4. Derechos y Obligaciones de los beneficiarios.*

4.1. Derechos.

Las personas usuarias de este servicio tienen:

a) Derecho a ser orientadas. Evaluada la necesidad concreta de la persona, se le orientará hacia los servicios o prestaciones que resulten más adecuadas a su situación, para ayudarle en la forma de decisión de formalización de la petición, ofreciéndole información tanto sobre el contenido y precios o ayudas del servicio como del procedimiento para acceder al mismo.

b) Derecho a no ser discriminado. Derecho a acceder y recibir voluntariamente el servicio sin discriminación por razón de sexo, raza, religión, ideología o cualquier otra condición o circunstancia personal o social y cesar, provisional o definitivamente, de su prestación por voluntad propia.

c) Derecho a un servicio adecuado: Derecho a recibir el servicio en cualquiera de las lenguas oficiales de la CAPV y a que se respeten su privacidad, autonomía y dignidad. En la medida de las posibilidades, las personas usuarias tendrán derecho a disponer de espacios privados y a utilizarlos según su criterio.

d) Derecho a la confidencialidad. Los datos de carácter personal que se conozcan con ocasión de la tramitación y prestación del servicio serán confidenciales y se ajustarán a lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

e) Derecho a información y participación. Recibir información y ser consultadas respecto a cualquier aspecto que pueda afectarles en su calidad de usuarios, a presentar quejas y sugerencias mediante los sistemas que para tal fin estén vigentes en el departamento de Servicios Sociales.

f) Las personas cuya estancia en la vivienda se prevea superior a un mes podrán solicitar el empadronamiento en la misma durante el tiempo que permanezcan en la misma y siempre y cuando cumplan con las disposiciones necesarias reglamentadas.

4.2. Obligaciones.

La persona o personas que accedan a este servicio serán obligados a:

a) Efectuar las oportunas gestiones administrativas y/o judiciales y/o cualquier otro orden necesarias para modificar la situación que ha provocado su estancia en la vivienda de alojamiento temporal. No permitir el uso del servicio a personas no autorizadas por el Ayuntamiento de Urnieta, independientemente del tipo de parentesco o relación que tenga con ellas.

b) Cumplir las normas de funcionamiento interno que regulen las condiciones específicas de uso y disfrute de las dependencias, objetos y servicios de la vivienda de alojamiento temporal.

c) Permitir el acceso, a los espacios cedidos en la vivienda, al personal del Departamento de Servicios Sociales o a personas autorizadas por la misma.

d) Pagar, la tasa que se haya determinado según lo dispuesto en el Anexo I de este Reglamento.

e) En caso de que se hubieran empadronado en la vivienda Municipal deberán darse de baja del padrón cuando cause baja del servicio. En caso contrario, se procederá a la baja de oficio por parte de este Ayuntamiento.

f) Onuradunen artean gatazka edo desadostasuna izanez gero, Gizarte Zerbitzuen Sailak izendatutako pertsonak eta zerbitzua kudeatzen duen erakundeak izendatutakoak beharrezko erabakiak hartuko dituzte, eta horiek onartu eta bete egin beharko dira.

g) Etxebizitza erabiltzen ari diren gainerako pertsonen pentsatzeko eta iritzia emateko askatasuna eta ideologia errespetatuko dituzte, eta iritzia emateko eskubidea izango dute.

## III. KAPITULUA

## PROZEDURA

*5. artikulua. Sartzeko prozedura.*

Sartzeko espedientea hasteko beharrezkoa izango da interesatuak aldez aurretik Urnietako Udaleko alkateari zuzendutako inprimaki normalizatuan eskaera egitea, berak sinatua, eta udaletxeko erregistroan aurkeztea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38.4 artikuluak zehazten duen eran eginda.

Prozeduraren edozein unetan, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi ahal izango, eta horretarako idatzia aurkeztu beharko du. Ondorioz, espedientea artxibatu egingo da.

Eskaeraren tramitazioa eta balorazioa Gizarte Zerbitzuetako teknikariek egingo dute. Horretarako txostena egingo dute, honako hauek adierazteko:

— Etxebizitzan sartuko diren pertsona edo pertsonen identifikazio datuak.

— Normalean eskatzailearekin bizi diren gainerako pertsonen identifikazio datuak.

— Ostatu eskaera egitera eraman duen egoeraren azalpena.

— Pertsonen egoera ekonomikoa.

— Ostatu ematea egokia den ala ez baloratuko da, eta epe horretan egin beharreko parte-hartze profesionala eta eskatzaileak hartuko dituen konpromisoak adieraziko dira. Eskaera onartuz gero, etxebizitzan egingo duen aldia proposatuko da.

Aipatutako txostena eta bertan jasotzen diren datu guztiak ziurtatzeko behar den dokumentazioa espedientearen barrukoak izango dira. Etxebizitza erabiltzeko dagoen aukeraren arabera eta jarraian adieraziko den lehentasun ordenari jarraiki, proposamena egingo zaio organo eskudunari.

Oro har etxebizitza erabiltzeko lehentasuna emateko, kontuan hartuko da egonaldiak irauten duen epean ostatu faltari konponbidea ematerik ba ote dagoen edo helburu hori lortzera bideratutako jarduerak martxan jartzerik ba ote dagoen.

Ohiko zaintzaileen tratu txarrak jasan dituzten adinekoak zaharren egoitzan sartuko dira, ahal izanez gero. Hala ere, adinekoak era autonomoan bizi daitezkeenean edo adinekoek beraiek eskatuta aukera izango da aldi batez ostatatzeko etxebizitzan toki bat okupatzeko kudeaketak egitea, Gizarte Zerbitzuen ustez hori baldin bada konponbiderik egokiena.

Eskaera aztertu eta baloratu ondoren, proposamena egingo zaio organo eskudunari, eta horrek ebazpena emango du, aldi batez ostatatzeko etxebizitza uzteko eskaera onartu edo baztertuta.

Ebazpena Udal Erregistroan sartzen denetik gehienez bi hilabeteko epean eman beharko da.

Aurreko atalean aurreikusitako epea bukatzean ez bada ebazpenik eman, ebazpena emateko betebeharra alde batera utzita, eskaera ez dela onartu ulertuko da eta interesatuak aukerako berraztertzeko errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko aukera izango du.

f) En caso de conflicto o desacuerdo entre las personas beneficiarias, la persona asignada desde los Servicios Sociales tomará las decisiones oportunas que se deberán aceptar y cumplir.

g) Respetar la libertad de pensamiento, opinión e ideología del resto de las personas usuarias del piso, teniendo derecho a expresar su opinión.

## CAPITULO III

## PROCEDIMIENTO

*Artículo 5. Procedimiento de acceso.*

El expediente de acceso se iniciará previa petición de la persona interesada en impreso normalizado dirigido al Alcalde del Ayuntamiento de Urnieta, firmado por la persona solicitante y presentando en el Registro General del Ayuntamiento o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común de entrada del Ayuntamiento.

En cualquier momento del proceso, la persona interesada podrá desistir de su solicitud, en cuyo caso deberá hacerlo por escrito. Este hecho conllevará el archivo del expediente.

La tramitación y valoración de la solicitud será realizada por los técnicos de los Servicios Sociales que elaborarán un informe preceptivo que determinará:

— Datos de identificación de la persona o personas a alojar.

— Datos de identificación del resto de personas que conviven habitualmente con el/la solicitante.

— Circunstancias que motivan la solicitud de alojamiento.

— Situación económica de las personas.

— Valoración sobre la conveniencia de conceder el alojamiento, intervención profesional a realizar en dicho período, compromisos que adquiere el acogido y, en caso, de que sea positivo, propuesta del tiempo a conceder.

Dicho informe y toda la documentación necesaria para acreditar las circunstancias que en él se señalen, formarán parte del expediente. En función de la disponibilidad y aplicando el orden de prioridad que a continuación se indica, se elevará la propuesta de resolución ante el órgano competente.

Como norma general tendrán prioridad en el uso aquellos casos en que se considere que durante el tiempo que dure la estancia se pueda dar solución a la carencia de alojamiento o poner en marcha intervenciones que puedan lograr dicho objetivo.

Las personas mayores que se encuentren en alguna de las circunstancias citadas, serán acogidas preferentemente en la vivienda tutelada, si bien, se podrá gestionar la ocupación de una plaza en la vivienda de alojamiento temporal si, a juicio de los Servicios Sociales, esta solución es más adecuada.

Una vez estudiada y valorada la solicitud, la propuesta será elevada al órgano competente que emitirá resolución estimando o desestimando la solicitud de cesión de la vivienda de alojamiento temporal.

La resolución habrá de producirse en el plazo máximo de dos meses desde la entrada de la solicitud en el Registro Municipal.

Transcurrido el plazo previsto en el apartado anterior sin que se haya adoptado resolución expresa y sin prejuicio de la obligación de resolver, se entenderá desestimada la solicitud a efectos de permitir al interesado la interposición del recurso potestativo de reposición o contencioso-administrativo.

Hala eta guztiz ere, etxebizitzan sartu baino lehen nahitaezkoa izango da onuradunak eta Gizarte Zerbitzuek esku-hartze plana sinatzea. Eskatzaileak agiri hori sinatu ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da.

*6. artikulua. Zerbitzuaren iraupena.*

Zerbitzua ematea onartuz gero, organo eskudunaren ebazpenean harrerak zenbat iraungo duen adieraziko da. Egonaldiaren iraupena erabakitzeko kontuan hartuko dira kasuaren ezaugarriak eta zerbitzuaren beharra sortu duen egoera konpontzeko dauden aukerak. Nolanahi ere, udal etxebizitzan gehienez urte betez egon ahal izango da,4 urte arte luzatu ahal izango dena, beti ere urtez urte, kontratua sinatzen denetik aurrera kontatzen hasita.

Egonaldia luzatzeko aukera, ezarritako moldeetan, bakar-bakarrik etxebizitza beharra dagoen kasuetan izango da, betiere hasieran diseinatu eta adostutako esku-hartze plana ondo badoa.

IV. KAPITULUA

ZERBITZUA ETETEA ETA BUKATZEA

*7. artikulua. Zerbitzua bukatzea.*

Bidezko espedientea hasi ondoren, Gizarte Zerbitzuen Sailak hala proposatuta, zerbitzua ezarrita dagoen data baino lehen bukatzeko erabakia hartu ahal izango da, interesatua aldez aurretik audientzian hartuta.

Zerbitzua arrazoi hauetakoren bat dela-eta eten daiteke:

— Harrerarako aurreikusita dagoen aldia bukatzea.

— Erabiltzaileak zerbitzuari uko egitea.

— Pertsona hiltzea.

— Zerbitzua eman beharra sortu zuen arrazoia desagertzea.

— Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak ezkutatu edo datu faltsuak ematea.

— Zerbitzua eskuratzeko behar den baldintzaren bat galtzea.

— Zerbitzuaren jarraipena egiteko eskatutako dokumentazioa ez aurkeztea.

— Beste erabiltzaileei eraso fisiko eta psikologikoa egitea.

— Zerbitzuaren agiriak ordaintzean arrazoirik gabe atzeratzea.

— Erabiltzaileek araudi honetan aurreikusitako beste betebehar batzuk behin eta berriro ez betetzea.

— Motiborik adierazi gabe alde egitea.

— Gizarte Zerbitzuak Saileko langileei edo horiek baimendutako pertsonei sartzen ez uztea.

— Barne funtzionamendurako arauak ez betetzea.

V. KAPITULUA

ARAUBIDEA EKONOMIKOA

*8. artikulua. Tasa.*

Zerbitzu hauen erabiltzaileek araudi honetako I. eranskinean ezarritako tasa ordaindu beharko dute.

En todo caso, será imprescindible la suscripción de un plan de intervención por la persona beneficiaria antes del ingreso y los Servicios Sociales. En el supuesto de que el/la solicitante no suscribiera el mencionado documento se entenderá que renuncia a su solicitud.

*Artículo 6. Duración del Servicio.*

En caso de aceptarse la solicitud de acceso a la vivienda de alojamiento temporal, en la resolución del órgano competente, deberá figurar la duración de la estancia, la cual se fijará en función de las características del caso y las posibilidades de solucionar la situación que ha provocado la necesidad del servicio. En cualquier caso, la duración máxima de permanencia en la vivienda Municipal será de 1 año, siendo prorrogable, por períodos anuales, hasta un máximo de 4 años, considerado a partir de la fecha de la firma del contrato.

La posibilidad de prórroga, en los términos establecidos, se entenderá solamente en aquellos casos en los que la necesidad de vivienda siga existiendo y en los que la ejecución del plan de intervención, diseñado y consensuado, evolucione favorablemente.

CAPITULO IV

SUSPENSION Y EXTINCION DEL SERVICIO

*Artículo 7. Extinción del servicio.*

Tras la instrucción del expediente oportuno, y a propuesta del Departamento de Servicios Sociales, se podrá determinar la extinción de la prestación del servicio antes de la fecha prevista para ello mediante la oportuna resolución, previa audiencia de la persona interesada.

El servicio se extinguirá por los siguientes motivos:

— Finalización del tiempo previsto para la acogida.

— Renuncia de la persona usuaria.

— Fallecimiento.

— Desaparición de la causa de necesidad que generó la prestación del servicio.

— Ocultamiento o falsedad en los datos que hayan sido tenidos en cuenta para la concesión del servicio.

— Pérdida de alguno de los requisitos exigidos para acceder al servicio.

— No aportar la documentación que pudiera ser requerida para el seguimiento del servicio.

— Por agresión física o psicológica a otros usuarios o usuarias del mismo.

— Por la demora injustificada en el pago de la tasa del servicio.

— Por incumplimiento reiterado de otras obligaciones de las personas usuarias previstos en este reglamento.

— Por ausentarse sin justificación.

— Por no permitir el acceso al personal de Servicios Sociales y otras personas autorizadas por estos.

— Por incumplimiento de las normas de funcionamiento interno.

CAPITULO V

REGIMEN ECONOMICO

*Artículo 8. Tasa.*

Los usuarios/as de estos servicios tendrán que abonar la tasa establecida en el Anexo I de este Reglamento.

*9. artikulua. Zerbitzua erabiltzetik eratorritako gastuak.*

Udalaren kontura izango dira gastu hauek: Komunitate gastuak, argindarra, gasa, ura, etxebizitza eduki edo erabiltzegatik ordaindu beharreko tasa edo zergak, zaborrak jasotzeagatik ezarritako tasa barne, eta konponketak egiteko gastuak, erabiltzaileen erruz sortutako kalteak ordaintzeko konponketak izan ezik.Hala eta guztiz ere, egonaldia aseguru batek ordaintzen duenean (hondamendia, sutea, uholdea) zerbitzutik eratorritako gastuak

*Xedapen indargabetzailea.*

Indarrik gabe gelditzen dira araudi honek xedatutakoari kontra egin edo horrekin kontraesana adierazten duten maila bereko edo beheragoko arau guztiak.

*Azken xedapena. Lehenengoa.*

Alkateari eskumena ematen zaio araudi hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren arauak eman ditzan.

*Azken xedapena. Bigarrena.*

Araudi hau indarrean hasiko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkarian argitaratzen denetik hamabost egunera.

I. ERANSKINA

## ALDI BATERAKO OSTATU ZERBITZUA EMATEAGATIK TASA

TASA

— Etxebizitza: 402 €.

— Gela: 134 €.

Ezarritako tasa ezin izango da zerbitzu hau lortu duen erabiltzailearen edo bizikidetza unitatearen sarreren %20 baino handiagoa. Nolanahi ere, egonaldia aseguruen batek estaltzen badu (hondamena, sutea, uholdea), tasa osorik ordaindu beharko da.

*1. Hondamendia, sutea, uholdea asegurua batek egonaldia ordaintzen duenean:*

— Etxebizitza: 402 €.

— Gela: 134 €.

Kasu honetan ez da gehiengorik ezartzen.

*2. Diru- sarrerarik ez baina erroldatuta dauden pertsonak (fondoko diru- laguntzak):*

— Etxebizitza: Tasa 166 €.

— Gela: Tasa 83 €.

Kasu honetan fondoko diru-laguntzak eman beharko lirateke

*3. Oinarrizko errenta kobratzen duten erroldatuak:*

(Ezarritako tasa ezin izango da zerbitzu hau lortu duen erabiltzailearen edo bizikidetza unitatearen sarreren %20 baino handiagoa).

— Etxebizitza: Gehienezko tasa166 €.

— Gela: Gehienezko tasa 83 €.

*4. Bestelako diru-sarrerak dituzten erroldatuak:*

(Ezarritako tasa ezin izango da zerbitzu hau lortu duen erabiltzailearen edo bizikidetza unitatearen sarreren %20 baino handiagoa).

— Etxebizitza: Gehienezko tasa 402 €.

— Gela: Gehienezko tasa 134 €.

*Artículo 9. Gastos derivados del uso del servicio.*

Serán a cargo del Ayuntamiento, los gastos de comunidad, electricidad, gas, agua, las tasas o impuestos de cualquier tipo relacionados con la tenencia o uso del inmueble, incluida la tasa de recogida de basuras, así como los gastos generados por arreglos, excepto que estos estén motivados por razones imputables a las personas acogidas. No obstante, en los casos en los que la estancia esté cubierta por un seguro (catástrofe, incendio, inundación) los gastos derivados del uso del servicio serán a cargo del mismo.

*Disposición derogatoria.*

Quedan derogadas todas las normas de igual o inferior rango en lo que contradigan o se opongan a lo dispuesto en este Reglamento.

*Disposición final primera.*

Se faculta al Alcalde para dictar cuantas normas de aplicación y desarrollo del presente Reglamento sean necesarias.

*Disposición final segunda.*

Este Reglamento entrará en vigor a los quince días de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

ANEXO I

## TASA POR LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE ALOJAMIENTO TEMPORAL

TASA

— Vivienda: 402 €.

— Por habitacion: 134 €.

La tasa establecida no podrá superar el 20% de los ingresos de la unidad conveniencia o del usuario que acceda a ese servicio. No obstante, en los casos en los que la estancia esté cubierta por un seguro (catástrofe, incendio, inundación) la tasa deberá ser abonada en su totalidad.

*1. Catastrofe, incendio, inundación cuya estancia será cubierta por un seguro:*

— Vivienda: 402 €.

— Por habitacion: 134 €.

En este caso no se establecen máximos.

*2. Personas empadronadas sin ingresos: (subvenciones de fondo):*

— Vivienda: Tasa máxima 166 €.

— Por habitacion: Tasa máxima 83 €.

En este caso habría que realizar subvenciones de fondo.

*3. Personas empadronadas con renta básica:*

(La tasa establecida no podrá superar el 20% de los ingresos de la unidad conveniencia o del usuario que acceda a ese servicio).

— Vivienda: Tasa máxima 166 €.

— Por habitación: Tasa máxima 83 €.

*4. Personas empadronadas con otros ingresos:*

(La tasa establecida no podrá superar el 20% de los ingresos de la unidad conveniencia o del usuario que acceda a ese servicio).

— Vivienda: Tasa máxima 402 €.

— Por habitación: Tasa máxima134 €.